



AMAIA ZENTROA
Benito Perez galdos z/g
01002 GASTEIZ
araba@bertsozale.eus
945010505

Urte zaharrari kopla bat bota
Agudo despeditzeko,
Ta berriari habanera bat
Indar betean hasteko!



2014ko abendua

ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEAREN

Berripapera

Urteak joan...

Berriz ere gabonak gurean dira. Zorion garaia, gureak gozatzekoa, urte berriaren aurretik atsedean eta indarrak hartzekoa. Saio garaia, kaleko hotzak sarri laguntzen baitu areto epela betetzen eta berotzen. Aldaketa garaia, urtea aldatzen delako, baina urteko lana ebaluatu eta berrirako asmo onak prestatzen ditugulako ere.

Eta bertsoak? Zer burutapen du?

Jakina da ez dituela hainbeste gabon izan gurean. Orain gutxi ospatu genituen gure artean igarotako lehen hogeita hamarrek. Hamaika ordu, hamaika barre, hamaika trago... eta hamabi bertso saiotxo. Aurten Kuadrilla artekoA ospatu dugu, lehia gabeko lehena, 2014rako asmo onetan zehaztu genuen bezala, *en alegre biribilketa*. Urtero bezala, barnetegiak, udalekuak, eskolarteko saioak, astelehen arratsalde batzuk, fusioak, konfusioak, klaseak, larunbat eta igandetako ordu batzuk, gogoak... jarri/eman dizkiogu bertsoari.

Baina bertsoak... handitzen jarraitu nahi du, hazten. Etxe gehiago nahi ditu Araban barrena, Antezanan, Muruan, Golernion, Iekoran, Oteon, Luiaondon.... Belarri gehiago nahi ditu kulunkatzeko, eztarri gehiago indartsu agertzeko, mahai-jartzaile esku gehiago... Edozein nerabek bezala benetako bizarra nahi du oraingo pelusillan, edozein gazte bezala ez dago konforme, gehiago nahi du. Eta prest gaude.

2015a indartsu hasiko da. Txapelketa tokatzen da aurten, banakakoa. Baina gure asmo onen artean txapelketa indartzea dago aurten. Bertsolari gutxiagorekin (aurrekanporaketetan geratu zirenak kontuan ez baditugu), baina ariketa eta egitura ezberdinarekin. Klasiko batzuk ere ez aurkeztea erabaki dute, baina lasai, bertsoaren erreka ez da geldituko, tanta berriz zipriztinduko gaitu. Baina bertsoa ez da bakarrik lehia, ez. Iritsiko dira eskolarteko, barnetegi, klase, astelehen arratsalde, fusio berritu, konfusio errepikatu, larunbat eta igande... eta... ohartzerako, beste gabon batzuk prestatzen egongo gara, negulekua antolatzen arkumea eta turroia erosi bitartean, urte zaharra ebaluatzen eta berria prestatzen.



Argitalpenaren laguntzailea:



Bertsolaritza zer da hori? -Azkuna in memoriam-

Goiz batean Munduko (Bilboko) alkate onena ohi baino ekimentsuago esnatu zen eta lehen aharrausia botxoratu orduko, esan zuen "Gaur ere zeozer handia egin behar dugu!". Bere kontseilariak deitu zituen.

Bilbo Handian dena da handi, super edo mega: San Mames Barria futboleko katedral berri, Super portua, Super Sur, Albondiga erraldoia, Euskalduna jauregia, Gugenjein, Calatravaren zubia... Orain jaun andreok: Euskal Herriko areto itxirik handiena egingo dugu! - Baina non maiestate? Ez zaigu inon kabituko!- Bada orduan Barakaldon!

Bertsozale elkarteari (ere) ez zitzaion harrezkero beste aukerarik geratu: Barakaldora! Gogoangarria izan zen bertsozale tradizionalekin elkar-teak zuen beldurra: aldatuko zuten ezin kitzikagarriagoa den Donostiako brisa Barakaldoko grisarekin?

Beste kezka bat ere agertu zen ordea: Zenbaterik jaikingo zuen Barakaldon bertsolaritza eta bere zeremonia erraldoiaren berri? Igande goiz batean bat-batean milaka euskal hiztun Barakaldon! Eta beraz, lehorreratze demasako hori prestatze aldera, 2005 hartan era antolatu eta nazionalen ekin genion Euskal Herriko erdaldun munduari -gutxiengo handi horri- bertsolaritza azaltzeari: ETB2-n, Radio Euskadi-n, El Correo-n, euskaltegietan...


Arabako aitzindariak ginen bertsolaritza erdal munduan txertatzen, azaltzen, zabaltzen. Baina olatu hark areago lagundu zigun guri ere.

Azken "kanpaina" Arabako herrietan egin dugu: Artziniega, Laudio, Amurrio, Murgia, Izarra, Agurain, Araia, Maeztu, Kanpezu, Urizaharra, Gaubea, Biasteri, Oion, Argantzun... Herririk herri ibili den misiolari honentzat ez dago gauza pozgarriagorik. Gehien-gehienetan jende ezin jatorragoa topatzen duzu, beren herrietan holako kultur ekimenak iristea estimatzen duena.

Kotxea hartu, musika goxoa jarri, Arabako errepide txikietan barrena abiatu, udazkeneko paisaian murgildu, jende jator-jatorrarekin elkartu eta bertsoaren magia pixka bat konpartitu: gozamen hutsa.

Ez dakit Azkunak hau dena ote zuen buruan ohi baino ekimentsuago goiz batean jaiki zenean "Gaur ere zeozer handia egin behar dugu!" esanez.

Guk jarraituko dugu txikira jokatzen.



**Bertsolaritza,
zer da hori?**
Ruben Sanchezekin

urriak 30, Laudio, aek euskaltegian
azaroak 3, Maeztu, liburategian
azaroak 6, Argantzun, ludotekan
azaroak 7, Laudio, kultur etxean
azaroak 12, Amurrio, aek euskaltegian
azaroak 14, Araia, kultur etxean
azaroak 18, Agurain, aek euskaltegian
azaroak 29, Artziniega, kultur etxean
abenduak 2, Dulantzi, kultur etxean
abenduak 3, Gaubea, liburategian
abenduak 4, Murgia, gaztetxean
abenduak 4, Guardia, ika euskaltegian
abenduak 10, Oion, B-2 aretoan
abenduak 12, Izarra, kultur etxean

35/18 sumarioa



2015eko Arabako 18/1 summarisimoan 18 lagun epaituko dituzte. Boluntarioki 35 aurkeztu ziren, beste 13 ezkutuan jarraitzen dute. Ondorioz batzuk barrura eta besteak kanpora.

Horretarako, iraila eta urrian boluntarioki aurkeztutakoak epaituak izan ziren, 5 saioetan: Kanpezun, Ozaetan eta Elosuko epaitegietan. Bertan, seriodemonio aurpegiak, gai-jartzaileen aginduetara eta epaileen menpean, epai-mahai herrikorik gabeko epaiketa hauetan ebatzi zuten 13 akusatuei "bertso-friki dotrina" aplikatuko dietela 2015ean, hau da, urtarrilaren 25etik, martxoaren 7ra arte bertsotan egin beharko dute nahita nahiez. Berdin gaixorik egon, gogorik izan ala ez, entrenatuta egon ala ez...bertsotan egin beharko dute.

Beste aldetik, "*Bertsoak sailkatu ez, Kuadrillartekoa bai*" Fundazioa eta txapelketazaleen arteko liskarrak ez ziren falta, eta Arabako Bertsozale Elkarteak, bere betiko jarrera epelarekin, kontziliazio lanak egin behar izan zituen behin baino gehiagotan.

18/1 summarisimoa



Urtarrilaren 17an, Langraiz-Okan aurkeztuko da 18/1 summarisimoa.

18 akusatuek, 3 saioetan banatuta, lehenengo itzulia egingo dute. Epaileek emandako puntuazioaren arabera, 18 auzipetu horiek, beste 3 saioetan sakabanatuko dira, Gasteiztik ahalik eta urrunen, dispersio politikaren ondorioz. Sortutako kostuak ordaindu beharko dituzte akusatuek.

Lehenengo 6 zigortuak Gasteizko Printzipal Antzokian epai-tuak izango dira, martxoaren 21ean.

Irabazleak txapelaren zama eramatera kondenatua izango da, 2017ra arte.

ZERNAHI

EYA, GERO ESANGO DUZUE INOR EZ DABILELA ENTRENATZEN, TXAPELKETAK NIRI NIFUNIFA ETA BERTSOA EZ DA LEHIA BAKARRBLABLABLA. Enteratu gaitunk, Berripapereko erredakzio-batzorde bulartsu eta apasionatuaren ikerketa-kazetaritzako lan arriskatu baten bidez, jendeak ederto gordeta duela txoteko bastoa (bertso-makilkadaka erabiltzeko aproposa den hori) mauka barruan: Gasteizen bunker bat omen zagonk, eta han ari omen ditunk, astean hirutan, 6 orduko saio etenik gabekoetan, hamarreko handiko ofizioak prestatzen... Aramaion ere, Urdungixo gaineko kaskoan dagoen txabola ezkutu batean elkartzen omen ditunk ia-ia egunero, pretentsio handiz (seguru baitaude euretako baten bat buruz burukora pasako dela) Iparragirren kantuan jotafuego... Aguraingo suburbioetako lonja anonimoenean ere ba omen zagonk txapelketitis foko bat... Errioxa aldean ere txapel-dunaren agurra entrenatzen ari omen ditunk, badaezpada, mahats-parrapeko zuloren batean... Eta Amurrion, jakin dugunez, txakolin adulteratzuko pozima bat prestatzen ari omen dira, justu saioa baino bost minutu lehenago kontrarioei kakalarri ezineutsizkoa eragingo diena... ETA ORAIN SEGI, TXAPELKETA, UUUUUUUUFA, ORAINDIK URRUN DAGO HORI...



AGENDA

2014-12-20, **Durana**

Arratzua-Ubarrundiako gazte eguna Ordua: 14:30 Lekua: Herriko lokala Bertsolariak: Paula Amilburu, Iñaki Viñaspre Antolatzailea: Arratzua-Ubarrundiako gazte-asanblada eta udala

2014-12-26, **Aramaio**

Jaialdia Ordua: 22:30 Lekua: Kultur etxea Bertsolariak: Beñat Gaztelumendi, Xabi Igoa, Alaia Martin, Aitor Mendiluze Antolatzaileak: Aramaioko Udala. Kultura Batzordea

2015-01-03, **Amurrio**

Jaialdia Ordua: 20:00 Lekua: Amurrio Antzokia Bertsolariak: Amets Arzallus, Sustrai Colina, Igor Elortza, Beñat Gaztelumendi, Unai Iturriaga, Maialen Lujanbio, Aitor Mendiluze, Aitor Sarriegi Gai-jartzaileak: Naroa Sasieta Antolatzaileak: Amurrioko Udala. Kultura Batzordea

2015-01-16, **Legutio**

Jaialdia Ordua: 19:00 Lekua: Kultur Etxea Antolatzailea: Legutioko Udala

2015-01-17, **Antezana**

Bertso-bazkaria. Ordua: 15:00 Lekua: Iñurrita Elkartea Bertsolariak: Felipe Zelaieta, Iñaki Viñaspre, Jon Ruiz de Pinedo, Manex Agirre, Unai Bengoetxea, Xabi Igoa, Xabi Rico, Asier Iriondo Gai-jartzaileak: Arabako gai-jartzaile taldea Antolatzailea: Arabako Bertsozale Elkartea

2015-01-17, **Gasteiz**

Jaialdia Euskharanen jaia. Ordua: 18:30 Lekua: Gaztetxea Bertsolariak: Irati Anda, Amets Arzallus, Igor Elortza, Julio Soto Antolatzaileak: Euskharan Kultur Elkartea

2015-02-14, **Gasteiz**

Gai-jartzaile Eskola. "Literatura abiapuntu". Hitzaldia Lekua: Amaia Zentroa Ordua: 17:00 Protagonistak: Harkaitz Cano Ordua: 18:00 Protagonistak: Eider Rodriguez Ordua: 19:00 Bertso-saioa Bertsolariak: Nerea Elustondo, Jon Maia Gai-jartzaileak: Eider Rodriguez Antolatzaileak: Bertsozale Elkartea

2015-02-25, **Gasteiz**

Bertso-saioa Ordua: 18:00 Lekua Iparralde Gizarte Etxean Bertsolariak: Asier Otamendi, Oihane Perea Antolatzailea: Gasteizko Udala